

Joxerra

ASPALDIKO TXANGO BAT

“Altza, Hautsa Kenduz” azken liburuan, gure txango lehenetariko bat deskribatu nuen Gazte-Leku elkartearen partaideak izanez (gehienek jakingo duzue, Santa Barbara auzoan kokatua zegoen). Garai hartan gure espediziorik haundiena kontatzeko irrikarekin geratu nintzen: Pirinioetako mendirik altuenaren tontorra zapaltzea zen gure helburua: Aneto. Bere 3.404 mt. eta bere glaziarrarekin, Everest antzera gure belarrietan jotzen zuen.

Liburu honen argitalpenaren arduradun eta irakurle orori barkamena eskatzen diet; agian gure herriko ibilbide batetaz idatzi behar nuen, baina ez dut nahi oroitzen hauek gal daitezten, nire uztez gure herriko zati bat ere baitira.

Gazteenek hau irakurtzean, pentsa dezatela gauzak ez direla orain bezain



Gazte-lekuko bazkide batzuk

errazak izan. Ez genuen telefono mobilarik, goretex, ez eta oraingo lumazko lo zakurik. Dena etxetik ibiltzekoagoa zen, eta batez ere ez genuen gaur egungo informazio pila, internet barne.

Lehen esan dudan bezala, Gazte-Leku elkartearen mendiko atalaren arduradunok, Aneto mendira txango (espedizio?) bat antolatzea erabaki genuen. Nahi zuen mundu guztiari irekita zegoen. Autobusa bete egin zen (mendiaren izena erakargarria baitzen); data ez dut zehazki gogoratzen, baina 76-ko udaren hasierako zubi bat omen zen.

Casares-etik oso gertu, Elizondo tabernaren izkinan, eguerdi batean, gazte talde koloretsu eta kopurutsu bat pilatu ginen, neska eta mutilok, zenbait egun batzuk ondo pasatzera (ligatzera agian); beste batzuk ordea zeruko ertzera iristeko asmoarekin.

Bakoitzak, mendia igotzeko beharrezkoa uste zuena eramaten zuen.

Altuera haietan ea inork ez zuen esperientziarik (pasaitar bat gogoratzen dut Anetora bigarren aldiz joaten zela).

Autobusaren goiko aldea motxila eta poltsa koloretsuez zamatatu genuen; motxila barruan eramaten zituen tomateak ez zapaltzeko, baten batek protestatzen zuen. Janari liofilizatuak eta barratxo energetikoak oraindik iristekoak ziren; nik, pertsonalki, beste astakerien artean, kilo bateko muxika pote bat neraman.

Buka ezinezko ekipajearen antolakuntza eta guraso batzuen agurra eta gero (kezkatuak gehienak), ordu bietan aldera atera zen autobusa, gazteez eta fardelez zamatuta.

Bidaia bukaezinezkoa izan zen; errepideak eta autobusa ez baitziren gaurkoak bezalakoak. Iruñea, Puente la Reina (Huescako), eskuinera jo, Huesca hiriburua, Barbastro, eta handik Benasquera iritsi ginen gaueko ordu bietan.

Benasque, hego Pirinioetako herririk turistikoena da, Gavarnie ipar partekoa den bezala.

1138 metrotan kokatua, nortasun handiko herri hau bere iraganeko aztarnak kontserbatzen ederki jakin du,



Anetora igotzen gauza ederrak ikus ditzakegu

bere kale eta etxe sendoetan ikus daitekeenez (salneurri debekatuen zaharkinetako dendak aparte, turismo bulego bat badu egun Benasque; han behar dugun informazio guztia emango digute).

Herria pasa genuen eta aldapa gora doan errepidetik, herritik sei kilometrotara eta Senarta izeneko presa igaro bezain laister, Esera ur izoztuak atxikitzen, eta kalamas-truta pista batetik jaisten Plan de Senarta deitutako zabalgunera iritsi ginen (gaur egun kanpin bat han badago). Baina oraindik oztopo bat faltatzen zitzaigun: zubia. Erdi lotan autobusetik jaitsi behar izan ginen et autobusa hutsik eta zerbait kezkatuta, txoferra, egurrezko zubia pasa egin zuen; guk bitartean, linternen argiaz zubiaren egiturak behatu egiten genuen.

Azken oztopoa gainditu eta gero, motxila guztiak autobusetik jaitsi genituen.

Bakoitza nola konpondu zen lo egiteko, ez naiz ondo gogoratzten; bi lagun eta hiruok, zortzi pertsonentzako kanadiar denda bat (elkarteko haundiena) muntatu genuen, militar modukoa.

Hiruetako zaharrena (Samuel), soldaduzkatik etorri berria, eta halako gauzetan ideia pixka bat zuenak, muntatu zuen denda, baina nire ustez ahaztua zeukan, justu-justu kabitzen baikin hiruok.

Gaueko lau eta erdietan eta ezer lo egin gabe, ibiltzen hasi ginen, nondik jakin gabe eta bakarrik intuizioari kasu eginez. Ez genuen ez mapa ez ipar-orratzik eramaten.



Aneto mendia Vallibierna-tik ikusita

Niri dendatik ateratzerakoan, norbaitek piolet bat utzi zidan; ez nuen ideiarik nola erabiltzen zen traste hura.

Vallibierna pistatik gure pausuak zuzentzen hasi ginen; zabal eta eroso ibiltzeko pista bat da, bi ordutan bukatzen dena, aterpe ireki bat bere bukaeran agertuz (1.950 mt.). Handik, eta zalantzarik gabe, ezkerrera jo genuen, bidezidor aldapatsuari aurre eginez, Coronas aintzirara abiatuz.

Nire lagunen batek, bere motxila astuna aparte, Gurutze Gorriko poltsa handi bat eramaten zuen, gizajo!.

Izugarrizko aldapa igotzen jarraitu genuen, aintzira batetik bestera; baina hortik ez zen La Renclusa aterpe famatua agertzen. Ingurua gero eta basatiagoa zen, eguraldia serioki aldatzen ari zen, eta aurrera jarraitzeko zalantzan genbiltzanean, Coronas azken aintziraren ertzean (2.750 mt.) mendi goiko aldetik presaka zetoze la bi pertsona ikusi genituen, ekaitzetik ihes egiten zetozenak. Agurtu eta gero, non ginen jakinarazi ziguten: guk aurkitu nahi genuen aterpea (La Renclusa), mendiko beste aldean zegoen, eta alde hartatik ez zegoen aterperik, bakarrik txabola txiki bat Ibon de Coronas aintzira txikiaren ertzean, 2.220 metrotan. Hernaniarrak ziren eta mapa baliotsu bat utzi ziguten, azkar buelta emateko aholkua emanaz.

Lehen trumoia entzun bezain laster, aldapa behera korrika hasi ginen gu ere, gauza txarrak entzun baikenituen mendiko ekaitzetaz. Benetako ekaitza antolatu zen txabolarara iritsi ginenerako. Bere barruan babestu ginen, pioletak urrun utziz, halako kasuetan tximistorratz indartsuetan bihurtzen baitira.



Aneto glaziarraren azken zatia

Txabola duela urte mordo bat desegina dago, baina orduan primerako aterpe bat zen; ez zuen aterik eta oso txikia zen baina babesa eta segurtasuna ematen zigun. Arratsaldeko laurak ziren eta ea 12 orduz menditik ondo zamatuta ibili eta gero, leher eginak ginen.

Ederki jan eta gero, arratsaldeko seietan lo zakuetan sartu ginen: ze gustua!

Goizeko seietan, nire laguna Manuel Caeiro, behera joatea erabaki zuen, oso nekatua jaiki baitzen; Samuel eta biok gorantz jarraitzea erabaki genuen et hiru aintzira pasa eta gero, Coronas mendi-lepora doan bide aldapatsua sufritzen hasi ginen. Behin baino gehiagoetan, bidetik Samuel buelta emateko proposatu zidan, baina ni, inguratzen gintuzten paisaiaz liluratuta, animatzen nuen. Mendi leporaino iristeko hormatxo bat trepatu behar izan genuen, 3.198 metrotan ginen; elurrezko ertza txiki bat pasa, eta hara zer jende pila!... glaziar osotik, xinaurri moduan izugarritzko jende ilara. Mendian bakarrik gu genbiltzanaren usteetan, jende mordo bat topatu genuen bide normaletik.

Haiekin bat eginez, azken aldapa (gogorrena), poliki-poliki igo genuen ea tontorreraino; han, gure txango-kide batzuekin elkartu ginen, haien artean Carlos Cabrera izena zuen mutiko gazte bat, eserita negarrez zebiltzala: arrazoa, ez zela ausartzen "Paso de Mahoma" deitutako ertza pasatzera. Gurutzeraino iristeko ertz beldurgarri bat pasa behar da; 30 metro edo omen dira, baina bi aldeetara bostehun metro inguruko amildegiak dituena. Gu, azken oztopoa kontu handiz zeharkatuz, gailurra oinpean hartuz, gure garaipena ospatu genuen. Inguratzen gintuen ikuspegi ikaragarri hark, nekea ahaztu erazi egiten zigun. Berrehun metro behe-rago jendea ikusten zen, pausu neketsuaz, gu geunden punturaino abiatzen zela. Tontorrean ederki gozatu eta gero, berriz ekilibrioetan pausu madarikatu horretatik.

Glaziarrean, askoz lasaiagoak, bide normaletik jaistea erabaki genuen, horrela mendiko beste aldea ezagutuko genuke eta.

Glaziarra txikia da, baina Pirinioetako handiena (1.600 x 1.000 mt.) izotz lodiera 50 metrotakoa izanez; baina gaur egun oso azkar urtzen ari da.

"Portillones" ikaragarritzko harkaitzezko atea pasa eta gero, harri eta elur artean, La Renclusa ikusi genuen. Ordu bete eskas batean, gure oin nekatuak, pista nagusian jarri genituen. Hortik, oso eroso, hiru ordutan edo, gure abiapuntura iritsi ginen, arratsaldeko zortzietan. Gure txango-kideak oso kezkatuak zeuden eta arratsalde horretan guardia zibilari gure desagertzeaz abisua emango zieten, bezpera goizeko lau eta erdietatik faltatzen baikinena eta ez zuten gutaz berririk.

Orduan izan zen tontorra garaipenaz benetan disfrutatzen hasi ginenean, galdutako indarrak ederki berreskuratu eta batez ere, ura edan genuen, ur pilo bat.

Beste hamabi ordu autobusez zain genituen, baina ez zuen inportik: Aneto igo genuen.